Firmado:

Nuria Hernandez Soto (Kontruhartzaile Nagusia/Interventora General) Data: 2017/11/14 Fecha: 14/11/2017  
Ignacio Uriarte Gorostiaga (Ogasun, Ekonomia-Sustapen eta Giza Baliabideetako Aholko Ord/Delegado del Área de Hacienda, Promoción Económica y RRHH) Data: 2017/11/14 Fecha: 14/11/2017

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (<http://www.getxo.eus/>) Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurik ez izan arren, legezko balioa du. Getxoko Udaleren web-orriarek (<http://www.getxo.eus/> administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal izazu formatu digitalaean, ezberriaidean ageri denegiazioaren kode seguruaren erabiliz.

## ANEXO 1 MODELO DE PRESENTACION DE OFERTA (SOBRE 3º)

D/Dña. \_\_\_\_\_  
en representación de la empresa \_\_\_\_\_  
se compromete a ejecutar el contrato de **SERVICIO DE ASISTENCIA TECNICA EN LA INSPECCION TRIBUTARIA DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO** con sometimiento pleno al pliego de condiciones, y según la siguiente propuesta:

### 1º PROPOSICION ECONOMICA: PORCENTAJES de RETRIBUCION

A) Por las cantidades liquidadas y descubiertas en el procedimiento de inspección que supongan la incorporación del contribuyente a padrones fiscales, que tengan continuidad en el futuro el adjudicatario percibirá el \_\_\_\_\_ % de las cantidades efectivamente ingresadas en la Tesorería Municipal en todos los conceptos (cuotas, intereses y sanciones).

B) Por las cantidades liquidadas y descubiertas en el procedimiento de inspección que **NO** supongan la incorporación del contribuyente a padrones fiscales, por tratarse de hechos imposables aislados, cuyo devengo se produce de forma individual y sin repetición el adjudicatario percibirá el \_\_\_\_\_ % de las cantidades efectivamente ingresadas en la Tesorería Municipal en todos los conceptos (cuotas, intereses y sanciones).

En estas retribuciones porcentuales del adjudicatario está excluida la cuota del Impuesto del Valor Añadido (IVA) correspondiente, que se añadirá al importe finalmente facturado por los servicios según este sistema de retribuciones.

2º.-Superar el **MINIMO DE "ASISTENCIA IN SITU"** exigido en \_\_\_\_\_  
horas/ semana adicionales a las seis mínimas

(Valoración 3 puntos por cada hora/semana adicional a las seis mínimas, hasta un máximo de 5 horas adicionales)

Lugar, fecha y firma



Signatur:  
Firmado:

Nuria Hernandez Sola (Kontu-Hartzaile Nagusia/Interventora General) Data: 2017/11/14 Fecha: 14/11/2017  
Ignacio Uriarte Gorostiega (Ogasun, Ekonomia-Sustapen eta Giza Baliabideetako Arloko Ord/Delegado del Área de Hacienda, Promoción Económica y RRHH) Data: 2017/11/14 Fecha: 14/11/2017

Promoción Económica y RRHH) Data: 2017/11/14 Fecha: 14/11/2017





26 DIC. 2017  
Idazkari nagusia / Secretario General



**GETXOKO UDALEKO ZERGA IKUSKAPENEAN ETA IKUSKARITZAREN ONDORIOZKO ZERGA PROZEDURAN LAGUNTZA TEKNIKOAREN ZERBITZUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA**

**1. KONTRATUAREN XEDEA ETA KALIFIKAZIOA**

Kontratuak GETXOKO UDALAREN ZERGA IKUSKAPENAREN funtzioetan ETA IKUSKAPENAREN ONDORIOZKO ZEHAPEN PROZEDURAN LAGUNTZA TEKNIKO NAHIZ JURIDIKOAREN LANAK izango ditu xede, hurrengo zehaztapenekin bat:

1.- Kontratatzaileak zerga guztien kasuan, baita izaerarengatik prozedura hau dagokien beste diru-sarrerara batzuen kasuan ere ikuskaritza eta zehapen prozeduretan lan osagarriak gauzatu ditu. Helburua preskribatuak ez dauden egitateak aurkitu eta azalera da, behin betiko likidazioa ez badute edo subjektu pasiboak ala zergadunak aitortutakoaren arabera behar bezala burutu ez bada. Nolanahi ere, horiek administrazioak aurkitu eta ikuskatu ditu.

Bereziki, hurrengo alderdiak sartuko dira:

**Aholkularitza** berezia Udaleko zerga kudeaketaren administrazio organoetara; administrazioaren ikuskapen jardunen arabera, telefonoz, posta elektronikoz ala udal bulegoetan eta legez dagokion tokian aurrez aurre etengabeko harremana izango da, ikuskapen espedienteak aztertu eta izapidetzean planteatzen diren gai teorikoak eta praktikoak berehala ebazteko.

**Laguntza administratibo eta tekniko**, ikuskaritza eta zehapen prozeduraren fase guztiak egiteko, prozedurak bideratzen dituzten administrazio edo administrazioarekiko auzi errekursoak ebaztea barne.

2.- Zereginak Zerga Kudeaketarako Udal Zerbitzuak aginduko ditu, Udal Kontuhartzailearen ikuskaritzapean, baina ez da inolaz ere agintea erabiliko. Zeregin zehatzak, aholkularitzari mugatutakoak, eta laguntza logistiko, informatiko eta dokumentalerako osagarriak edo zergadunen zerga egoerak materialki egiaztatzeak izango dira, honako funtzioen eremuan berariazkoak eta orokorrean laguntzailekideak:

- Zerga obligazioen egitatezko kasuak ikertzea, Administrazioak ezagutzen ez dituenak aurkitzeko.
- Zergadunek aurkeztutako aitortpen eta autolikidazioen egiazkotasuna eta zehaztasuna egiaztatzea.
- BLHko 2/2005 Foru Arauak 92. eta 93. artikuluetan xedatutakoarekin bat, zergak aplikatzearekin zerikusia duen informazioa lortzeko jarduerak gauzatea.

1005 000 000

- d) Eskubideen, errenten, produktuen, ondasunen, ondareen, enpresen eta gainerako elementuen balioa egiaztatzea, zerga betebeharrak zehazteko beharrezkoa denean; hala, BLHko 2/2005 Foru Arauak 127. eta 128. artikuluetan xedatutakoa aplikagarria izango da.
- e) Zerga onurak eta zerga itzulerak lortzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzea eta zerga araubide bereziak aplikatzeko baldintzak ematen direla ziurtatzea.
- f) Egiaztapen eta ikerketa prozeduren ondorioz, baita zergaduna aurrez aurre egon gabe erregularizazio prozeduren ondorioz ere zerga likidazioak burutzeko proposamena egin dadin informazioa eta aurrekariak biltzea. Nolanahi ere, azken proposamena egitea funtzionario publikoari dagokio, bere eginkizuna baita.
- g) Beste organo edota administrazio publiko batzuei txosten proposamenak burutzeko eta BLHko 2/2005 Foru Arauak 163. artikuluan aipatzen duen saiheste fiskalaren aurkako klausula aplikatzeko txostena egitea.

3.- Halaber, kontratuaren xedea da honako jardunetan laguntza eskaintzea:

- a) Zerga iruzurra hautematen laguntzea eta lankidetzan jardutea.
- b) Ekitaldi bakoitzean ikuskapen plana formulatzean laguntza teknikoa.
- c) Iturri desberdinetako datuak gurutzatzen dituzten teknika informatikoen bitartez identifikatzea eta, hala badagokio, zergen datu baseetan ahazte edo datu okerrak zuzentzea.
- d) Zergen arau-hausteengatik bideratzen diren espedienteak egin eta izapidetzeko laguntza materiala ematea eta zergadunen egoera erregularizatzeko proposatzen diren likidazioetan euskarri materiala eskaintzea, atzeratu, zatitu edo, hala badagokio, zehapena barkatzeko proposamenean laguntza materiala barne.
- e) Zergen likidazioetarako egitateak zehaztu arte, errekerimenduak materialki formulatzeko eta beharrezkoa den dokumentazioa egiteko proposamenak. Proposamenak zehazteko jardura guztiak Udalak definitutako pertsonaren adostasunpean eta bere sinadurarekin gauzatuko dira. Nolanahi ere, aipatu funtzionario publikoa aktuarioa izango da eta duen agintea erabiliko du.
- f) Dagokion funtzionarioak eskatu ostean, txostenak formulatuko ditu eta ikuskapen jarduerarengatik formula daitezkeen administrazio errekurtsioak ebazteko proposamena ageriko da. Gainera, aktuarioak eskatzen duen bestelakoa egin beharko da, ebazpen proposamena barne.

g) Zerga Kudeaketarako Sailaren arduradunak adierazi ondoren eta horiek zorrozki ikuskatuta, bestelako administrazioei edota zerga kudeatzean eta biltzean Udalaren erakunde laguntzaileei egindako aldaketak bidaliko zaizkie, katastro, matrikula, erroldetan... isla izateko.

h) Ikuskapen jardueren inguruan administrazioarekiko auzi jurisdikzioan sortzen diren errekurtsu eta erreklamazio guztiei dagokienez, txostenak egin eta horietan laguntzea.

i) Orokorrean, Udalak gauzatutako ikuskaritza jardueren ondorioz, zerga ikuskapenari buruzko espedienteak izapidetzeko udal funtzionarioek behar dituzten gai guztietan aholkularitza teknikoa, baita kontabilitatearen eta legearen mailakoa ere, eskaintzea. Era berean, bileretara joango dira eta izapideak egingo dituzte, ikuskapen prozesuan berriarazkoak badira, hala nola, langile ikuskarien aholkulari tekniko-juridikoak. Halakoetan, zerga ikuskaritzan aginpidea duten udal funtzionarioek eskatuko dute laguntza.

**Ez dira inolaz ere kontratazioaren xede** izaerarengatik agintea erabiltzea eskatzen duten zereginak eta funtzioak edota bereziki langile funtzionarioei gordetzen zaizkienak. Dena den, kasu horietan lehen deskribatutako laguntza zerbitzuak emango dira.

Kontratuaren xedea ikusirik, kalifikazioa **zerbitzuen administrazio kontratua** litzateke, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 14koak, Sektore Publikoaren Kontratuari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenak, 10. eta 19. artikuluetan xedatutakoaren babesean. Ildo horri utsiz, legearen II. eranskinarekin bat, honako deskribapena du: 11. kategoria.

## 2. KONTRATUAREN PREZIOA ETA URTEKO AURREKONTU MUGA

Kontratuaren zenbateko guztia hasieran ezin daitekeenez zenbatu, laguntzen diren ikuskapen jardueren eta lortzen diren emaitzen araberakoa izango da, atal honetan zehazten diren baldintzetan eta ehuneko prezioei jarraiki.

Kontratuaren guztizko prezioaren gehienekoa **240.000,00 euro (BEZa barne)** dira, hau da, **120.000,00 euro/URTE, (BEZa barne)**. Bere indarraldi osoan (2 urte) eta izan daitezkeen urtebeteko luzapenetan (2 urte gehiago) kontratuaren balioa kalkulatzeko zenbateko hori kontuan hartuko da, beraz, kontratuaren **balioa**, aurrez ikusitako aldaketak barne (% 25), 495.867,77 eurora iristen da.

Kontratuaren aurrekontu ondoretarako, urtero 120.000,00 euroko aurrekontu izendapen nahikoa izango du.

Kontratu honen modalitatearekin bat, urteko gehieneko zenbatekoa kontuan hartuta, kontratistari **ordainsariaren prezio zehatzak ehunekoetan** finkatzen dira, jarduera desberdinetan lortzen den azken emaitzaren arabera. Aldizka edo puntualki sortzen

diren zerga kontzeptuekin bat bereiziko dira. Hala, **ehuneko prezioak lizitazio prezioak dira, hau da, lizitatzailleek eskaintzetan hobe ditzaketenak** lirateke honako azalpenei erreparatuz:

Ikuskaritza jardunerako lankidetzeta eta laguntza teknikoaren lanak garatu diren espedienteak ordainduko dira, ezkutuzko zerga oinarriak, aitortu gabekoak edo legez kanpoko egoerak aurkitzen badira. Horrez, gain, ikuskaritza aktak egin ondoren, zerga eta interes tasak likidatzean eta zehapenak jartzean amaitu beharko dute eta zergadunak irmoki adostasuna edo desadostasun akta azaldu beharko du. Hona hemen ordaintzeko erabiliko diren xehetasunak:

a) Ikuskapen prozeduran likidatu eta aurkitu diren zenbatekoengatik, horiekin zergaduna zerga erroldetan sartzen bada eta etorkizunean jarraipena badute: Kontzeptu guztietan (kuotak, interes-tasak eta zehapenak) Udal Diruzaintzan eraginkortasunen sartutako zenbatekoen % **60**.

b) Ikuskapen prozeduran likidatu eta aurkitutako zenbatekoengatik, zergaduna zerga erroldetan sartzen ez bada, zerga egitate isolatuak direlako, sortzapena banaka eta errepikapenik gabe eginez gero: Kontzeptu guztietan (kuotak, interes-tasak eta zehapenak) Udal Diruzaintzan eraginkortasunen sartutako zenbatekoen % 35.

Adjudikaziodunaren ehuneko ordainsari horietan Balio Erantsiaren gaineko Zergari (BEZ) dagokion kuota **kanpo** gelditzen da eta ordainsari sistemaren arabera azkenean zerbitzuengatik fakturatzen den zenbatekoari gehituko zaio.

### 3. ORDAINTZEKO MODUA

Hilero ordainduko da, adjudikaziodunak Udal Diruzaintzan eraginkortasunez sartutako zenbatekoen arabera eskaini diren zerbitzuengatik faktura aurkeztu ostean. Xede horrez, aurreko atalean aurrez ikusitako ordainsarien sistemari erreparatuko zaio. Fakturaren agiriarekin batera, sartutako zenbatekoen eranskina lagunduko da eta hurrengo xehetasunak izango ditu: data, kontzeptua eta zergaduna. Hala, udal informazioa eskuratu beharko da.

### 4. KONTRATUAREN GAUZATZE EPEA

Kontratu honen iraunaldia BI URTEKOA izango da, formalizatu eta sinatzen den unetik zenbatzen hasita. Gehienez urtebeteko bi luzapen egin daitezke ondoz ondo.

## 5. BALDINTZA TEKNIKOAK. TXOSTEN TEKNIKOAK

Lizitatuzaileak **2. GUTUN-AZALEAN TXOSTEN TEKNIKOAK** aurkeztuko du eta horretan laguntza eta lankidetzaz zerbitzua eskaintzeko modua deskribatuko da. **Gehienez DIN A-4an 30 orrialde (15 orrialde alde bietan idatziak)** izango ditu.

Txostenak nahitaez honako alderdiak zehaztuko ditu eta, kasuak kasu, originalaren edo kopiaren bitartez nahikoa egiaztatuak azalduko dira:

### 1. Kontratua gauzatzeko modua

Kontratua gauzatzeko modu zehatzari buruzko azalpen agiria; hala, lan planak eta metodoak, Udalarekin lanak koordinatzeko modua, bilera teknikoak, etab. definituko dira.

Eskaintzak kontratua gauzatzeko ezinbesteko baldintza gisa exijitzen den tokian bertan laguntza eskaini beharko du, hau da, gutxienez astean behin sei ordu, goizez. **BAINA EZIN du izan** gutxienekoaren gainetik bertaratzeko bestelako ordutegi eta egunen aipamenik, eskaintzaren zati hau automatikoki balora baitaiteke eta, ondorioz, eskaintza ekonomikoarekin batera sartuko da "Balorazio Irizpide Automatikoak" 3. GUTUN-AZALEAN, 1. eranskinaren arabera.

Informazio hori 2. gutun-azalean sartzen bada, eskaintza baztertuko da.

### 2. Atxikitako langileak

a) **Zerbitzua eskaintzeko zuzenean atxikitako** langileen izenen zerrenda, euren curriculum vitaearen laburpenarekin (kontratua gauzatzeko nahitaez eskatzen diren gutxieneko langile baliabideak, ikusi seigarren klausula).

b) Enpresako beste langile batzuen izenen zerrenda eta beren curriculum vitaearen laburpena, noizean behin zerbitzua eskaintzera bideratutako zuzeneko langileei aholkularitza eta laguntza funtzioak osatzen laguntzen badizkiete.

c) Pertsona bakarraren izena eta prestakuntza profesionala, curriculum vitaearen laburpenarekin eta enpresaren organigraman duen lanpostuaren xehetasunarekin; izan ere, aipatu pertsona enpresak berak izendatuko du kontratuaren arduradun bezala eta, beraz, bera izango da administrazioarekin koordinatzailea eta solaskidea kontratua garatzeko eta abiada eta gauzatzeko egokiarekin zerikusia duten gai guztiak ebazteko.

d) Enpresaren beraren langileei buruzko politikaren deskribapen agiria; bereziki landuko ditu lanean prestakuntzarekin, segurtasunarekin eta higienarekin nahiz zerbitzu medikoekin zerikusia duten alderdiak. Berariaz azalduko da langileei aplikatzen zaien hitzarmen kolektiboa.

### 3. Bitarteko materialak

Kontratuaren xede den zerbitzua eskaintzeko eskuratu eta erabiliko diren bitarteko materialak zehaztuko dira. Batetik, langile baliabideekin harremana definituko da eta, bestetik, zerga ikuskapen prozeduraren barruan jardueretarako beharra justifikatuko da. Arreta berezia jarriko zaio ikuskapenaren administrazio prozedurak kudeatzean lagun dezaketen aplikazio edo tresna informatiko espezifikokoak ba al dituzten adierazteari.

### 6. KONTRATUA GAUZATZEKO EZINBESTEKO BALDINTZAK

Kontratu hau gauzatzeko, enpresak **gutxieneko taldea** aurkeztu beharko du eta zerbitzua eskaintzeari zuzenean atxikia egongo da. Bi pertsonak osatuko dute: bata zuzenbidean lizentziatua eta bestea ekonomia edo enpresa zientzietan lizentziatua (edo pareka daitezkeen unibertsitate tituluak dituenak, biak lau urteko esperientzia profesional egiaztatutarekin antzeko funtzio edo zereginetan ala kontratuaren xedeak adierazten dituenekin harreman estua dutenak).

Taldeak **“tokian bertan” laguntza**, hau da, xede horrez adierazitako udal bulegoetan eskainiko die Zerga Kudeaketarako Udal Zerbitzuei gutxienez sei orduz. Orduetgia astean behin goizez egituratuko da.

TXOSTEN TEKNIKOA agirian berariaz idatziz jasoa utziko da gutxieneko baldintza horiek betetzen direla aurreko klausulan deskribatutako moduan eta ordenan.

### 7. KONTRATUA GAUZATZEKO GIZARTE BALDINTZA BEREZIAK

Gai horri eutsiz, kontratuaren administrazio baldintzen pleguan berez aurrez ikusitakoa kontuan hartuko da.

### 8. UDALAREN BETEBEHARRAK

Getxoko Udalaren betebeharrak bereziak, Administrazio Baldintzen Pleguan zehaztutakoez gain, honakoak dira:

- Zerga ikuskapenaren lanetarako lankidetzeta eta laguntza zereginetan diharduten pertsonentzat lanpostua edo tokia gaitzea, behar bezala egiteko; horrez gain, jendearekin harremana izanez gero, nahikoa identifikatuak geldituko dira.
- Zerga ikuskapenerako elementu materialak, datuetara konexioa, Internet, telefono linea eta faxa eskuratzea.

- Zerga ikuskapenaren berariazko funtzioak beteko dituen pertsona izendatzea. Izendatutako pertsona **funtzionarioa** izango da, agintaritzaren agentetzat joko da eta adjudikaziodunari emandako laguntza lanetan agintea ez erabiltzea zainduko du.

- Adjudikaziodunari puntualki kontratuan zehazten diren prezioaren eta moduaren arabera egindako fakturen zenbatekoa ordaintzea, udal zerbitzuek zuzen dagoela egiaztatu eta organo aginpidedunak onartu ostean.

- Kontratataren ikuskapen ekintzan lankidetzeta eta laguntzaren ondorioz eraginkor sartu den diruaren inguruan kontratistari egiazko informazioa eskuratzea.

- Nagusiki fitxategi informatikoetan, udalerriko zergadunei buruz Udalak edo beste administrazio batzuek izan dezaketen informazioa bidaltzea. Udalak laga edo eskuratutako datuekin kontratistak kontu handia izango du eta kontratuaren xede diren helburu desberdinetarako ezingo ditu erabili.

- Laguntza kontratuaren indarraldian zerga ikuskapenari eta zehapenei buruzko jarduera eta prozeduren ondorioz sor daitezkeen posta, jakinarazpen eta komunikazioen gastuak ordaintzea, hortaz, administrazioaren kontura eta kargura izango dira.

## 9. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

Laguntza Zerbitzua eskaintzearen ondoriozko betebeharrak dira, bereziki, honakoak:

a) Adjudikaziodunak plegu honetan eta bere eskaintzan zehaztutako moduan eskaini beharko du zerbitzua eta txostenean finkatutako prozedurei eta Udalak emandako argibideei erreparatuko die. Konpromiso berezia hartuko du zerbitzua modu elebidunean eskaintzeko, bai ahoz, bai idatziz, hirugarrenekin harremanetan jarri behar badu. Helburua herritarrari Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan (euskaraz eta gaztelaniaz) arreta egokia eskaintzea da.

b) Administrazio baldintza berezien pleguetan datuak babestearen arloan zehaztutako betebehar berezietz gain, era berean, egindako jarduerak isilpean mantenduko dira eta kontratua betetzeko izan ditzakeen datu pertsonalak administrazio kontratugilearekin zerikusirik ez duten hirugarrenek erabiltzea saihestuko du. Eginbeharra betetzen ez bada, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

Xede horrez, lanak gauzatzeko edozein fitxategi pertsonal erabili behar delako Udalak zuzenean edo zeharka enpresa adjudikaziodunari lagatzen dionean, tratatzez arduradunaren izaera izango du eta, ondorioz, Datuak Babesteko Lege Organikoak 12. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da. Halaber, Administrazio Baldintzen Pleguan araututakoa kontuan hartuko da.

Udalak laga edo eskuratutako datuekin kontratistak kontu handia izango du eta kontratuaren xede diren helburu desberdinetarako ezingo ditu erabili.

c) Sei hilez behin zerbitzuaren abiadari buruzko txostena aurkeztu beharko du eta horretan jardueren egoera zehaztuko da eta berariaz aipatuko dira emandako zereginak, baita kontratatutako laguntzari dagokionez beste edozein hobekuntza proposamen ere.

d) Enpresa adjudikaziodunak txosten teknikoak azaldu edo zehaztu dituen bitarteko materialak eta giza baliabideak eskura jarriko ditu.

e) Zerbitzua goizez eskainiko da, administrazioak duen ordutegiarekin bat.

**f) Kontratatistak lanaren, aurreikuspenaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun nahiz higienaren arloan indarreko legezko xedapenak edo kontratuaren indarraldian emandakoak bete beharko ditu bere kargura dituen langileei dagokienez, kontratatutako zerbitzuari atxikiak badaude. Ildo horri jarraiki, administrazioa ez-betetzearen erantzukizunez salbuetsia geldituko da. Beraz, erakunde adjudikazioduna da enpresaburua. Zerbitzua eskaini eta kontratuari atxikitako langileek Getxoko Udalarekin ez dute inolako zerbitzu harremanik izango.**

g) Adjudikaziodunak bere langileen artean kontratuaren arduraduna izendatuko du. Udalaren aurrean solaskidea izango da planteatzen diren alderdi eta gorabehera guztietarako eta, bereziki, kontratua behar bezala gauzatzeko administrazioak emandako argibideak jakinaraziko ditu.

**Hurrengoetarako nahikoa ahalmena izango du:**

**-Plegu honen arabera, aurrez aurre egon edo jardun behar duenean eta kontratuaren eskakizunak betetzearen ondorioz bestelako jardueretan, enpresa adjudikaziodunaren ordezkaria izateko, betiere zerbitzua behar bezala gauza dadin eta abiada egokia izan dezan.**

**- Zerbitzua eta Udalak emandako aginduak antolatzeko.**

Arduradunaren datuak Txosten Teknikoan dagokion atalean eskuratu eta idatziz jasoak utziko dira.

h) Enpresa adjudikaziodunak kontratua behar bezala gauzatzeko Administrazioak ematen dituen aginduak bete beharko ditu eta beharrezko teknikariak jarriko ditu eskura, zerbitzuak hala eskatzen duenean.

i) Jakinarazpenak eta gainerako jarduerak administrazioak adierazitako moduan eta berak dioen posta bitartekari edo agentearekin egingo dira. Ikuskapen jardueraren ondorioz sortzen den dokumentazio guztia Udalaren titulartasuneko izango da eta bere logotipoa agertuko da. Adjudikaziodunak ondorio horietarako neurri egokiak hartuko ditu eta bereziki zainduko du datu hori eta ikuskaritza funtzioak atxikitzen zaizkion agintaritza edo funtzionario publikoak subjektu pasibo ala bere ordezkarietzat prozedura guztian zehar ikusgai edo ezagun izatea.



f) Empresa adjudikaziodunak ikuskapen eta zehapen prozeduretan emandako zereginen ondorioz eginkizun eta agiri guztiak integratzeko bitartekoak eta ekintzak eskura jarri beharko ditu. Horretarako, Getxoko Udalaren administrazio prozedurei eta bitarteko informatiko propioei eutsiko zaie, horrek zehazten duen moduan. Helburu horrekin kanal eta bitartekoak gaituko dira, bai datu informatikoak irauliz, bai beste integrazio prozedura batzuk erabiliz; are gehiago, Udalaren titulartasun eta erabilerako bitarteko eta aplikazio informatikoetara jo ahal izango da. Bereziki, espedienteak jarraitu, ordainagiriak nahiz kobratze agiriak kudeatu eta abarri dagokionez.

## 10. KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Lizitatzailak urteko negozio bolumena egiaztatu beharko du eta azkeneko hiru urteetatik negozio bolumen handiena izan den urtea kontuan hartuta, gutxienez 150.000,00 eurokoa izango da.

Lizitatzailaren edo hautagaiaren urteko negozioen bolumena onartu eta Merkataritza Erregistroan gordailutatuko urteko kontuen bidez egiaztatuko da, enpresaburua aipatu erregistroan inskribatua badago eta, bestela, inskribatua dagoen erregistro ofizialean gordailutatukoak aurkeztu beharko dira. Banako enpresaburuak Merkataritza Erregistroan inskribatuak ez badaude, urteko negozioen bolumena inbentarioen eta urteko kontuen liburuen bitartez egiaztatuko dute, Merkataritza Erregistroan legeztatu ondoren.

## 11.- GAITASUN TEKNIKOA EDO PROFESIONALA

Gaitasun tekniko edo profesionala egiaztatzeko irizpidea kontratuaren xedetik abiatuta antzeko eta izaera bereko lanak egiten esperientziarena izango da. Horretarako, interesdunak azkeneko bost urteetan egindako lanen zerrenda aurkeztuko da, kontratuaren xedeari dagozkion izaera edo mota berekoak badira. Bermatzeko gauzatze onari buruzko ziurtagiriak aurkeztuko dira, horien hartzaileek egin ostean. Gutxienezko baldintza da gauzatze maila handiagoari dagokion urtean urteko zenbateko metatua gutxienez 87.000,00 euro izatea.

Egiaztatutako lan edo horniduren eta kontratuaren xede diren artean parekotasuna zehazteko, azkenekoaren kasuan sailkapen aplikagarria badago, batzuk eta besteak sailkatzen diren taldeak eta azpitaldeak kontuan hartuko dira eta gainerako kasuetan CPV kodeen lehenengo bi digituen parekotasunari erreparatuko zaio.

## 12.- KONTRATATZEKO PROZEDURA ETA MODUA

Kontratu honen adjudikazioa prozedura irekiz gauzatuko da, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginak aurrez ikusitakoarekin bat.

## 13.- BERMEA

Hartutako eginbeharrak betetzen dituela bermatzeko, ekonomikoki eskaintzarik abantailatsuena aurkeztu duen lizitatzailleak 9.917,36 euroko behin betiko bermea osatuko du, hain zuzen ere finkatutako gehieneko prezioaren % 5, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpo.

#### 14.- KONTRATUA ALDATZEA

Kontratua aldatzea bidezkoa izango da, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 14koak, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak, 107. artikuluan xedatutako kasuez gain, honako kasuetan:

Urtean urteko prezioaren % 25eko mugara arte (30.000,00 euro/urte, BEZa barne) kontratua aldatzea aurrez ikusten da, kontratuaren xede diren baldintzetatik abiatuta, urtebetean kontratua gauzatzearen ondorioz Diruzaintzan sartutako zenbatekoa edo ikuskaritza jardueratik espero dena aurrekontu mugatik gora fakturatu behar denean eta hasierako kontratuaren urteko gehieneko prezioa (120.000,00 euro/urte, BEZa barne) gainditzen denean, ordainsarien edo ordainketaren sistema kontuan hartuta.

Nolanahi ere, aldatzeko berariaz administrazio kontratugilearen erabakia beharko da. Aldaketa proposamenean zehazki eta zenbatuta diru-sarrerak zehaztuko dira, baita aldaketa aholkatu edo gomendatzen duten gorabeherak ere.

#### 15.- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

Kontratua adjudikatzeko oinarri bezala erabiliko diren irizpideak ondorengoak dira:

##### a) AUTOMATIKOKI ebalua EZIN DAITEZKEEN irizpideak: 30 PUNTU

Lizitatzailleak aurkeztutako TXOSTEN teknikoaren oinarripean, ondorengo alderdiak baloratuko dira:

##### 1. Kontratua gauzatzeko modua.....5 puntu

5.1. klausulari dagokionez, lanak antolatu eta gauzatzearen alderdi berriztatzailleak, praktikoak, etab. baloratuko dira, horiek optimizatzeko badira.

##### 2. Atxikitako langileak.....20 puntu



**Getxo**  
UDALA • AYUNTAMIENTO



Fueros, 1  
48992 GETXO (Bizkaia)  
Tf: 94 466 00 00  
Faxa: 94 466 00 85  
http://www.getxo.eus

5.2 a) klausulari dagokionez, eskatutako gutxieneko taldetik (*zuzenbidean lizentziatua eta ekonomia edo enpresa zientziatan lizentziatua ala pareka daitezkeen unibertsitate titulazioak*) gora zerbitzuari zuzenean atxikitako langileak izatea baloratuko da (6 puntu); era berean, gutxieneko taldeak lau urtetik gorako esperientzia *profesional egiaztatua* izatea baloratuko da (6 puntu).

5.2 b) klausulari dagokionez, zerbitzua eskaintzeko zuzenean atxikitako giza baliabide osagarrien egokitasuna baloratuko da, zerbitzua emateko langileen kopuru, horien gaitasun tekniko eta esperientziarekin batera (8 puntu).

### 3. Bitarteko materialak.....5 puntu

5.3. klausulari dagokionez, zerbitzua eskaintzeko ematen diren bitarteko materialen egokitasuna eta irismena baloratuko dira.

#### b) AUTOMATIKOKI ebalua DAITEZKEEN irizpideak: 70 PUNTU

Lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzan oinarrituta (1. eranskina), hurrengo moduan baloratuko da:

#### 1. Ordainsariaren ehunekoak.....55 puntu

Lizitazio prezio modura aurrez ikusitako adjudikaziodunaren ordainsariaren ehunekoak baloratuko dira honakoa kontuan hartuta:

##### A) 30 puntu

##### Lizitazio oinarria hurrengo izango da:

- *Ikuskapen prozeduran likidatu eta aurkitu diren zenbatekoengatik, horiekin zergaduna zerga erroldetan sartzen bada eta etorkizunean jarraipena badute: Kontzeptu guztietan (kuotak, interes-tasak eta zehapenak) Udal Diruzaintzan eraginkortasunen sartutako zenbatekoen % 60 jasoko du adjudikaziodunak.*

- *Lizitazio oinarria 0 punturekin baloratuko da.*

- *Prezioa murrizten duten gainerako eskaintzak (adjudikaziodunaren ordainsariaren ehunekoa) honako formula erabiliz baloratuko dira:*

**Baloratzen ari den eskaintzaren puntuak = eskaintzarik onena x puntuak**  
guztira eskaintza baloratzeke

##### Adibidea erantsi da:

oinarria	% 60 enpresaren zenbatekoetatik
----------	---------------------------------

**0 puntu**

% 40 udalaren zenbatekoetatik		
45 enpresaren zenbatekoetatik		20,00
55 udalaren zenbatekoetatik		
50 enpresaren zenbatekoetatik		18,00
50 udalaren zenbatekoetatik		
40 enpresaren zenbatekoetatik		22,50
60 udalaren zenbatekoetatik		
30 enpresaren zenbatekoetatik		<b><u>30 puntu</u></b>
70 udalaren zenbatekoetatik		

**B) 25 puntu****Lizitazio oinarria hurrengoa izango da:**

- *Ikuskapen prozeduran likidatu eta aurkitutako zenbatekoengatik, zergaduna zerga erroldetan sartzen EZ bada, zerga egitate isolatuak direlako, sortzapena banaka eta errepikapenik gabe eginez gero, Udal Diruzaintzan kontzeptu guztietan (kuotak, interes tasak eta zehapenak) eraginkortasunez sartutako zenbatekoen % 35 jasoko du adjudikaziodunak.*

- *Lizitazio oinarria 0 punturekin baloratuko da.*
- *Prezioa murrizten duten gainerako eskaintzak (adjudikaziodunaren ordainsariaren ehunekoa) honako formula erabiliz baloratuko dira:*

$$\text{Baloratutako eskaintzaren puntuak} = \frac{\text{eskaintza onena} \times \text{puntuak guztira}}{\text{baloratu beharreko eskaintza}}$$

**Adibidea erantsi da:**

oinarria	% 35 enpresaren zenbatekoetatik % 65 udalaren zenbatekoetatik	<b><u>0 puntu</u></b>
	30 enpresaren zenbatekoetatik 70 udalaren zenbatekoetatik	8,33
	25 enpresaren zenbatekoetatik 75 udalaren zenbatekoetatik	10,00
	20 enpresaren zenbatekoetatik 80 udalaren zenbatekoetatik	12,50
	10 enpresaren zenbatekoetatik	<b><u>25 puntu</u></b>

90 udalaren zenbatekoetatik

**2.- "Bertan egoteko" eskatzen den gutxienekoa gainditzea.....15 puntu**

Gutxieneko sei orduetako ordu/aste osagarri bakoitzeko 3 puntu emango dira, gehienez 5 ordu osagarri arte.

**16. ADJUDIKAZIODUNAK EGINDAKO ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPEN ARAUBIDEA**

Adjudikaziodunak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan definitutako prestazioak eta betebeharrak zati batean gauzatzen ez baditu edo udal agindua obeditzen ez badu (funtsezko kontratuaren betebeharrak), ez da beharko Udalak aldeztu aurretik ohartaraztea eta hurrengoren bat aukera dezake:

1.- Kontratua suntsiaraztea eta kalte-galerengatik kalte-ordaina jasotzea, bidezkoa bada.

2.- Zehapena jartzea, ondoren zehaztutakoaren arabera. Kontratua gauzatzean kontratistak egindako arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke:

Arau-hauste arinak: baldintza teknikoen eta administrazio baldintza berezien pleguetan xedatutako arau orokor eta bereziak ez betetzearekin zerikusia dutenak.

Aldez aurretik adjudikaziodunarekin egindako lanak akatsez gauzatzea. Kontratuaren udal arduradunak agindua eman ostean, aitzakiarik gabe ez obeditzea edo eskeren bati arreta ez eskaintzea, betiere larritzat jotzen ez bada.

Arau-hauste arina egiteagatik, 150 eta 750 euro bitarteko zehapena jarriko da eta zenbatekoa Udalak zehaztuko du, arau-haustearen garrantziaren eta sortutako eragozpenen arabera.

Arau-hauste larriak:

Eskaintakoarekiko langile desberdinak zerbitzuari atxikitzea.

Udalaren ikuskapenak ahalbidetzeko orduan ezezteak edo kontra agertzea.

Dokumentazioa faltatzea.

Zehazten diren urritasunak edo anomaliak zuzentzeko Udalak ematen dituen aginduak aitzakiarik gabe ez obeditzea.

Urtebeteko epean hiru arau-hauste arin metatzea.

Arau-hauste larria egiteagatik, 750 eta 1.500 euro bitarteko zehapena jarriko da eta zenbatekoa Udalak zehaztuko du, arau-haustearen garrantziaren eta sortutako eragozpenen arabera.

Arau-hauste oso larriak: Urtebeteko epean hiru arau-hauste larri metatzea.

Arau-hauste oso larria egiteagatik, 1.500 eta 3.000 euro bitarteko zehapena jarriko da eta zenbatekoa Udalak zehaztuko du, arau-haustearen garrantziaren eta sortutako eragozpenen arabera.

Zehapenak aplika daitezten, adjudikaziodunari jakinaraziko zaizkio, 10 egunetan bere interesak defendatzeko egokitzen jotzen duena alega dezan. Zehapena alkateak onartu ondoren betearazlea izango da eta zenbatekoa fakturari kenduko zaio, kontratua suntsitzen denean izan ezik; hori kontratazio organoak xedatuko du.

Getxon, 2017ko azaroaren 14an.

<b>Kontu-hartzailea</b> <b>Nuria Hernández Soto</b>	<b>Ogasun, Ekonomia Sustapen eta Giza</b> <b>Baliabideen zinegotzi ordezkaria</b> <b>Inazio Uriarte Gorostiaga</b>
--	--

A pesar de no contar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (<http://www.getxo.eus/>) Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Ajiri Honek eskuz idatzitako sinadurik ez izanperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udaleraren web-orrialdeak (<http://www.getxo.eus/>) administrazio elektronikoko butlegoan) ajiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerrealdean ageri denegiaztapan-kode segurua erabiliz.

## 1. ERANSKINA

## ESKAINZA AURKEZTEKO EREDUA (3. GUTUN-AZALA)

\_\_\_\_\_ jaunak/ andreak,  
\_\_\_\_\_ enpresaren izenean, **GETXOKO**  
**UDALAREN ZERGA IKUSKAPENEAN LAGUNTZA TEKNIKOAREN ZERBITZUARI** buruzko  
kontratua gauzatzeko konpromisoa hartzen du eta baldintzen plegua oso-osorik beteko du,  
hurrengo proposamenari jarraiki:

### 1.a.- PROPOSAMEN EKONOMIKOA: ORDAINSARIEN EHUNEKOAK

A) Ikuskapen prozeduran likidatu eta aurkitutako zenbatekoengatik, zergaduna zerga erroldetan sartzen bada eta, ondorioz, etorkizunean jarraipena izan behar badu, **adjudikaziodunak** Udal Diruzaintzan kontzeptu guztietan (kuotak, interes tasak eta zehapenak) eraginkortasunez sartutako zenbatekoen % **jasoko du**.

B) Ikuskapen prozeduran likidatu eta aurkitutako zenbatekoengatik, zergaduna zerga erroldetan sartzen **EZ** bada, zerga egitate isolatuak direlako, sortzapena banaka eta errepikapenik gabe eginez gero, Udal Diruzaintzan kontzeptu guztietan (kuotak, interes tasak eta zehapenak) eraginkortasunez sartutako zenbatekoen % ..... **jasoko du**  
**adjudikaziodunak.**

Adjudikaziodunaren ehuneko ordainsari horietan Balio Erantsiaren gaineko Zergari (BEZ) dagokion kuota kanpo gelditzen da eta ordainsari sistemaren arabera azkenean zerbitzuengatik fakturatzen den zenbatekoari gehituko zaio.

**2.a.- "BERTAN EGOTEKO" GUTXIENEOA** gutxieneko sei orduetako  
hurrengoan gainditzea: \_\_\_\_\_ ordu/ aste osagarri.

(Gutxieneko sei orduetako ordu/aste osagarri bakoitzeko 3 puntu emango dira, gehienez 5 ordu osagarri arte).

Tokia, data eta sinadura

Handwritten scribbles and marks in the upper left quadrant.

